2026ko AZAROA

BERMEON ZER?

Azaroak 7
Halloween Metal Fest

Azaroak 8
San Martin azoka

Azaroak 12
BATERA BERMEON aurkezpena

Azaroaren 13tik 15era
San Martin auzoko jaiak

Azaroak 25
Emakumeenganako Indarkeria Matxista Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna

BERMEOKO UDALA

ZEUK ERABAKI!

2027ko Aurrekontu Partehartzaileak

50.000€

ZELAN PARTE HARTU?
¿CÓMO PARTICIPAR?

Zelan parte hartu · Cómo participar

Berh@z-en bitartez · En la oficina de Berh@z
Kultur Etxeko sarreran · En la entrada del Kultur Etxe
Liburutegian · En la biblioteca
Kiroldegian · En el polideportivo
Zaharren egoitzan · En la residencia Sancti Spiritus
Formulario elektroniko bidez (QR) · A través de un formulario electrónico (QR)
Zalantzak 010era deitu · Consultas en el 010

Azaroaren 2tik 22ra
Del 2 al 22 de noviembre

Bozkatzeko ordua
Hora de votar

Azaroaren 30ean
30 de noviembre

Proiektu irabazlearen barri emotea
Publicación del proyecto ganador

BERMEOKO UDALA

04 **Eguaztena**
Gizarte eta Kultura Etxeko hitzaldi aretoan 18:00etan

LAN SAIOA
ESNATU



Esnatu ala hil hitzaldiaren haritik, eta Bermeoko egoera soziolinguistikoan eta lurralde estrategian oinarrituta, lan saioaren muina galdera honi erantzutea izango da: zer egin dezakegu Bermeoko eragileok udalerri euskaldunei eusteko?
Dinamizatzailea: Arritxu Zelaia (UEMAko teknikaria)
Antolatzaileak: ***UEMA eta Bermeoko Udala***

06 **Barikua**
Erroxaperen lokalean 19:00etan

EKITALDIA
BINGOA
Antolatzailea: ***Erroxape Emakumeen Elkartea***

Nestor Basterretxea aretoan 20:00etan

KONTZERTUA
ALOS QUARTET-AHOPEKA



Alos Quartet taldea Xabier Zeberio (nyckelharpa eta biolina, bultzatzaile sortzailea eta fundatzailea), Francisco Herrero (biolina, fundatzailea), Lorena Núñez (biola) eta Alejandro Saúl (biolontxeloa) musikariek osatzen dute.
Alos Quartet 1999an sortu zen, musika klasikoan eta garaikidean esperientzia zabala duten musikariek osatuta. Xabier Zeberioren sorkuntzatik abiatuta, harizko laukotearen bidez estilo eta musika-esparru anitzak lantzen ditu eta gaur egungo musikaren esparru anitzak arakatzen ditu; ikuspuntu berri bat eskaintzen du. 5 disko eta kontzertu ugari egin ditu Espainian zein nazioartean, eta artista ezagun askorekin kolaboratu du. Azken urteetan, zineman ere jardun du; hainbat filmetako soinu-bandetan parte hartu du, tartean Akelarre, 2021eko Musika Onenaren Goya saria irabazi zuena.
ALOS QUARTETek AHOPEKA ikuskizun akustiko berria estreinatu berri du Alemaniako Kapfenburgeko jaialdian. Areto txiki eta espazio berezietarako propio sortutako ikuskizun honek harrera paregabea izan du eta kritika bikainak jaso ditu.
Publikoari gertutasunetik, gure musikaren esentzia modu akustikoan partekatzea du xede proposamenak.
Sarrera: 5 € (Sarrerak salgai Gizarte eta Kultura Etxean eta www.bermeo.eus webgunean)

SAREA
EUSKADIKO ANTZOKI SAREA
RED VASCA DE TEATROS

Antolatzailea: ***Bermeoko Udala***
Laguntzailea: ***Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza***

07 **Zapatua**
Areneko kiroldegian

KIROLA
ESKUBALOIA

HAURRAK NESKAK:
Urdaibai Kurtzio – Urdaibai Demiku
Urdaibai Sollube – SI URIBE PLENGOR
Urdaibai Txatxarramendi – San Adrian 14
KADETE NESKAK:
Urdaibai Garbola Occidental – Sidenor Basauri
Urdaibai Burgoa Inpesca – Askartza Claret
GAZTE MUTILAK A:
Urdaibai Inpesca – Corazonistas
GAZTE MUTILAK B:
Urdaibai Occident – Askartza Claret



Taraskatik
09:30etik

INGURUETATIK OINEZ
IBILBIDEA

Ibilbide zirkularra eta zailtasun gutxikoa.

Antolatzailea: ***Berbalagun***

Artza frontoian
18:30ean

DANTZA IKUSKIZUNA
BUSTURIALDEKO DANTZARI NAGUSIEN EGUNA

Parte hartuko duten dantza taldeak:

Itsas Alde (Bakio)
Irrintzi Alai (Busturi)
Urdaibai (Forua)
Elai Alai (Gernika - Lumo)
Artie (Gautegiz Arteaga)
Basotxoritxu (Ibarruri)
Alkartasuna (Bermeo)



Antolatzailea: ***Alkartasuna dantza taldea***
Laguntzailea: ***Bermeoko Udala***

07 **Zapatua**
Bermeoko Kafe Antzokian 20:00etan



EKITALDIA
XIX HALLOWEEN METAL FEST

Kontzertuak:
- 20:30. Sönambula
- 21:25. Quaoar
- 23:00. Rise To Fall
- 00.30. Bloodhunter

Zozketak eta sariak egongo dira
Sarrerak salgai: Luma liburu-dendan (Bermeo), Gothic-Zone (Bilbo) eta Bermeoko Kafe Antzokiaren webgunean.

Antolatzailea: ***Spookypheria Productions***
Laguntzailea: ***Bermeoko Udala***

08 **Domeka**
Areneko kiroldegian

KIROLA
ESKUBALOIA

KADETE MUTILAK: Urdaibai Talape Occident – Muskiz Eskubaloia

Lameran Goizean

AZOKA
SAN MARTIN AZOKA

XXIII. Bermeoko Udalaren odoloste txapelketa eta txerriki azoka

Antolatzaileak: ***Andeko Taberna eta Apurtu Arte Sokatira Taldea***
Laguntzailea: ***Bermeoko Udala***



12 **Eguena**
Gizarte eta Kultura Etxeko hitzaldi aretoan 18:45ean harrera 19:00etan aurkezpena



AURKEZPENA

BATERA BERMEON: euskararen etorkizuna elkarrekin eraikitzeko prozesuaren aurkezpena.
Zelan eman bultzada euskararen erabilerari Bermeon? Galdera horri elkarrekin erantzuteko jarriko dugu martxan BATERA BERMEON parte-hartze prozesua.
Herritar, eragile eta erakundeen ahotsak bilduko ditugu, egungo errealitatea ezagutu eta datozen 10 urteetarako bide-orria adosteko.
Helburua da erronkak partekatu eta euskaraz gehiago egiteko baldintzak sortzea, herria aktibatzea eta ahalduntzea.
Denon ekarpenak behar ditugu, euskaratik hurbil zein urrun sentitzen direnenak. Begirada anitzak elkartu eta herri-akordio berritu eta ilusionagarria eraiki nahi dugu, euskararen aldeko sarea zabaldu eta aberasteko.

Antolatzaileak: ***Taupa Euskaltzaleen Mugimendua, Etxalak eta Bermeoko Udala***

13 **Barikua**
Nestor Basterretxea aretoan
17:00etan
19:00etan

FILM EMANALDIA
GOAZEN TELESAILA



ETBk ematen duen Goazen telesailaren azken denboraldiaren estreinaldia.
Gonbidapen bitartez izango da sarrera, eta ikastetxeetan banatuko dira gonbidapenak.

AntolatzaileaK: ***Bermeoko Udala, UEMA eta EITB***

Liburutegian
18:00etan

FILM EMANALDIA
TXIKIZINE

Umeentzako filma jarriko da umeentzako liburutegian

Antolatzailea: ***Bermeoko Udala***

Erroxaperen lokalean
19:30ean

SAN MARTIN
AFARIA

Josepa kale kale taldearen kantaldiarekin
Izen-ematea: Erroxaperen bulegoan, azaroaren 10a baino lehen

Antolatzailea: ***Erroxape Emakumeen Elkartea***

Gizarte eta Kultura Etxean
19:00etan

FILM EMANALDIA
DOKUMENTALA



Matxitxako TKTk, Berriatuako Andoni Txakartegi Txakarekin batera, bere proiektu solidarioei buruzko dokumental bat emango du. Txakak Helmugak Elkartearekin elkarlanean egindako proiektuei buruzko dokumentala izango da

Antolatzailea: ***Matxitxako TKT***

14 **Zapatua**
Erretenetik
08:00etan

KIROLA
MINBIZIAREN AURKAKO TXIRRINDU SOLIDARIOAK



Matxitxako TKT, Bizkaiko Minbiziaren Aurkako Elkartearekin batera, euren bizikleten gurpilak puzten ari da, elkarteak eta bere boluntarioek urte osoan egiten duten lanari ikusgarritasuna emateko.
Aurten, Bermeotik Gernikara joango dira eta, ondoren, Ondarroa zeharkatuko dute. Minbiziaren Aurkako Elkarteak boluntario taldeak ditu bai Bermeon bai Ondarroan.

Antolatzaileak: ***Matxitxako TKT eta Bizkaiko Minbiziaren Aurkako Elkartea***

SAN MARTIN KALEKO JAIAK

13 Barikua



18:00. Txokolatea bizkotxoakaz, karpan

18:00etatik aurrera, buruhandiak karpa inguruan

19:00. Txupinazoa karpan

19:30- 21:00. Salsa ekitaldia Dantzaz Blai taldearen eskutik

19:30. Kanta Kanta Lorue, karpatik eta auzotik

20:30 - 22:00. Txalainak, Hertzainak taldeari tributua, karpan

22:30 - 00:00. Bribriblibli, Extremoduro taldeari tributua, karpan

00:00 – 02:00: Black Heart

14 Zapatua



10:30. San Marton lasterketarako dortsalak salgai karpan

11:00. San Marton lasterketa solidarioa (EUTSI GOGOR DANOK BATERA) Ibilbide luzea eta laburra egongo dira.

11:00. Umeen lasterketa

Ondoren, nagusien lasterketa

12:30 – 14:00. Umeen txokoa karpan

13:00 – 14:00. Ttakuntxo txalaparta taldearen eskutik, txalaparta tailerra

*Goiz guztian zehar taloa salgai karpa ondoan

15:00. Bertso herri bazkaria karpan

17:30. Jolasak: txapel jaurtiketa, sokatira, aulkien jolasa...

18:00 – 19:00. Gatazka perkusio ikuskizuna

20:00 – 21:30. Aimar & La Bandada kontzertua karpan

22:00 – 01:00. Argitu erromeria karpan

01:00 – 02:00. JAIKIDE diskofestagaz karpan

15 Domeka



10:00. Txosna zabaldu

10:00 -13:00. Eskubaloia kalean Urdaibai Eskubaloi Taldearen eskutik karpa inguruan

11:00. Orkatzeta taldearen eskutik umeentzako MTB lasterketa, kalistenia gunearen inguruan

13:30 - 14:30. Erroxapeko Martxa taldearen eskutik musika saioa karpan

15:00. Zozketa eta sari banaketa karpan. Herriko hainbat komertzioren kolaborazioa eskertzen da

Antolatzailea: ***San Martin Auzoko Elkarte Soziokulturala SMB***

Laguntzailea: ***Bermeoko Udala***

2026KO UDAZKENEKO

berbalagun lehiaketa

Parte hartu lehiaketan eta Bermeoko produktuak irabazi. Zelan? Bete orri hau, argazkia atera eta bidali **whatsappez 607 609 580 zenbakira.**

Azken eguna: azaroaren 13a.

Erantzun zuzenak eta sariduna: berbalagun eta sustatzaileen sare sozialetan.

Bermeoko berbalagun
http://praktikatu.eus/blog/bermeo

Izena:

_____

Telefonoa:_____

❶ Lotu, zenbakia idatziz:

1. Eltze
2. Arkatz
3. Guraize
4. Antiojo
5. Sakel
6. Aizto
7. Erretilu

- ☐ Betaurreko
- ☐ Azpil
- ☐ Patrikera
- ☐ Lapiko
- ☐ Lapitz
- ☐ Artazi
- ☐ Labana

❷ Amaitu esaldia:

Ez badakizue egoten,

- ☐ Ez galdetu
- ☐ Ez erantzun
- ☐ Ez etorri
- ☐ Jai daukazue

❸ Argazkikoa da:

- ☐ Portu buru
- ☐ Kikunbera
- ☐ Kai alde
- ☐ Ikusteder



❹ Bertsolaririk onena da:

_____

14 **Zapatua**
Areneko kiroldegian

KIROLA
ESKUBALOIA
HAURRAK NESKAK:
Urdaibai Kurtzio – Zuazo gorria
Urdaibai Gaztelugatxe – Urdaneta F
KADETE NESKAK:
Urdaibai Luruna – Berdezurigorri Gorri
Urdaibai Tribis Inpesca – Kadagua EE
GAZTE MUTILAK B:
Urdaibai Occident – Ibaizabal Durango
SENIOR MUTILAK:
Urdaibai Irastorza – Beltzagorri Santutxu

15 **Domeka**
Santa Eufemia elizan 12:00etan

DENDA SOLIDARIOA
KIDENDA
Bidezko merkataritza eta kontsumo arduratsua
Antolatzailea: ***Kidenda***

Areneko kiroldegian

KIROLA
ESKUBALOIA
KADETE MUTILAK:
Urdaibai Talape Occident – Loiola Indautxu
KADETE NESKAK: Urdaibai Burgoa Inpesca – Zuazo Cadete Beltza

18 **Eguaztena**
Musika eskolan 18:15ean

MUSIKA
MUSIKALEAN
Musika eskolako koro txikia, trikitrixa eta pandero ikasleak
Antolatzailea: ***Bermeoko Udala***

19 **Eguena**
Musika eskolan 18:00etan

MUSIKA
MUSIKALEAN
Musika eskolako gitarra eta konbo gazteak
Antolatzailea: ***Bermeoko Udala***


Liburutegian 18:30-20:00

IRAKURLE TXOKOA
'EZ DA ERRAZA GIZON ON BAT AURKITZEA'
Flannery O'Connor
Itzulpena: Itziar Otegi
Antolatzailea: ***Bermeoko Udala***



Gizarte eta Kultura Etxean 18:00-20:00

IKASTAROA
EHUNGINTZA BIRZIKLATZEKO TAILERRA
Armairuan ahaztuta duzun arropa horri beste bizitza bat eman! Eskuz josteko teknikak erabiliz, arropak berrerabiltzen eta eraldatzen ikasiko dugu. Hariari tiraka, arropa merkearen atzean dauden emakumeen lan baldintzez eta gure kontsumo ohiturez ere hitz egingo dugu
Trebatzaileak: Lady Viviana Toro Peláez eta Diana Betancur
Izen-ematea: berdintasuna@bermeo.eus / 688 63 84 49 (Telefonoa eta WhatsAppa)
Plazak mugatuak dira. Bermeon erroldatutakoek lehentasuna izango dute. Irisgarritasun beharrik baduzu, jakinarazi izena ematean
Hurrengo saioak: azaroak 19 eta 26
Antolatzailea: ***Bermeoko Udala***



20 **Barikua**

TRANS MEMORIAREN EGUNA

Transfobiak eraildako pertsonak gogoan hartzeko eta trans pertsonen eskubideak aldarrikatzeko eguna
Gure herrian ez dago transfobiarentzako lekurik.
Trans pertsonen bizitzak, eskubideak eta askatasuna ez daude eztabaidagai!

Nestor Basterretxea aretoan 18:00etan

UMEENTZAKO ANTZERKIA

'BIDUTZI', BENETAN BE





Barregarria, hunkigarria eta optimista... Ikaragarria izango da! Inauteri gauean munstroek eta mozorroek kaleak hartzen dituzte festa giroan. Hain pozik dabil Bidutzi anabasan eta hain da tentagarria ez sartzeko esaten duen kartel hori... "Ez sartu! Batez ere munstro ala kokomarroa bazara. " Noski, kaiola barruan sartuko da. Eskerrak Godofredok dena ikusi duen. Edo Ainara da, Godofredoz mozorrotuta, dena ikusi duena? Horrek ez du axola orain. Orain kaiolatik irten beharra dago ehiztaria eta laguntzailea bueltatu baino lehen. Lortuko dute Ainarak eta Bidutzik ihes egitea? Lortuko du Bidutzi txikiak hamabiak jo aurretik berak bakarrik norbait ikaratzea? Munstroek eta gizaki mozorrotuek elkarri lagunduko diete urteko gaurik zoroenean eta eurekin batera eramango dituzte ikusleak ikaratik algarara. Txotxongilo eta zuzeneko kanta originalen laguntzarekin, txiki eta heldu beldurtzera jolastuko gara eta elkarren eskutik helduta barre egingo dugu!
3 urtetik gorakoentzat gomendatua
Sarrera: 5 € (salgai azaroaren 9tik aurrera Gizarte eta Kultura Etxean eta udaleko webgunean)

Antolatzailea: ***Bermeoko Udala***

Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza

Erroxaperen lokalean 19:00etan

FILM EMANALDIA

'UN GOLPE CON ESTILO'

Antolatzailea: ***Erroxape Emakumeen Elkartea***

21 **Zapatua**
Areneko kiroldegian

KIROLA

ESKUBALOIA
HAURRAK NESKAK:
Urdaibai Sollube – Ibaizabal Durango
Urdaibai Txatxarramendi – SI URIBE URIBE
KADETE NESKAK: Urd. Garbola Occidental – Berango Urduliz Eskubaloi
GAZTE MUTILAK B: Urdaibai Occident – Askartza Claret

Aurrekoetxea kalean

SANTA ZEZILIA EGUNA

AURREKOETXEA KALEKO JAIAK
Txokolatea bizkotxoekin
Umeentzako jokoak
Musika

Antolatzailea: ***Aurrekoetxea kaleko bizilagunak***

Laguntzailea: ***Bermeoko Udala***

22 **Domeka**
Areneko kiroldegian

KIROLA
ESKUBALOIA
GAZTE MUTILAK A: Urdaibai Inpesca – Balonmano Barakaldo Bizkaia
GAZTE NESKAK B: Urdaibai Alakrana – Berdezurigorri berdea

Aurrekoetxea kalean 13:00etan

KALEJIRA
SANTA ZEZILIA EGUNA
Bermeoko Abesbatzaren kalejira, Aurrekoetxea kaletik hasita
Antolatzailea: ***Bermeoko Abesbatza***

San Frantzisko elizan 13:00etan

EKITALDIA
MEZA ABESTUA
Santa Zezilia eguna izanda, mezan abestuko du Izaro Abesbatzak
Antolatzailea: ***Izaro Abesbatza***



25 **Eguaztena**



EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA MATXISTA EZABATZEKO NAZIOARTEKO EGUNA

Goiko plazan 12:00etan

EKITALDI INSTITUZIONALA
Antolatzailea: ***Bermeoko Udala***

Arratsaldean

MUGIMENDU FEMINISTAREN DEIALDIA
Adi komunikazio-kanalei, xehetasunak ezagutzeko!

26 **Eguena**
Liburutegian 18:30 20:00

IRAKURLE TXOKO FEMINISTA
'KONTRAKO EZTARRITIK', Uxue Alberdi
Antolatzailea: ***Bermeoko Udala***



SATEVI (24 ORDU, 51 HIZKUNTZA) 900.840.111
AHOLKULARITZA: Biktima, senide, eta profesionalentzat. Doakoa, ez da fakturan agertzenturan agertzen

SEXU-INDARKERIAREN BIKTIMEI ARRETA OSOA (24 ORDU) 900.840.977

GIZARTE ZERBITZUAK, ABOKATUA, PSIKOLOGOA 946.179.160

BERDINDU.LGTBI PERTSONENTZAKO ARRETA PSIKO-JURIDIKOA 945.029.079

BLZ. BIKTIMARI LAGUNTZEKO EPAITEGIETAKO ZERBITZUA 900.400.028

* **Informazioa eskatzeak ez zaitu beste pausorik ematera behartzen**
* **Behar duzun edozertarako deitu**

indarkeria matxistari aurre egitea guztion ardura da

BERMEOKO UDALA

MINISKATE ARETOKO ARAUDIA



Segurtasuna eta arau orokorrak

Diziplina bakarra: Gune honetan monopatina (skatea) da baimendutako jarduera bakarra.

Babes-neurriak: Derrigorrezkoa da kaskoa eta babesak (belaunekoak, eskumuturrekoak eta ukondokoak) une oro erabiltzea.

Arropa: Kirol-arropa egokia erabili behar da. Debekatuta dago jarduera kamisetarik gabe egitea.

Gunearen zaintza: Aretoan ezin da kristalezko ontzirik, edaririk edo janaririk sartu.

Edukiera eta Adin-mugak

GEHIENEZ 8 PERTSONA

EGON DAITEZKE ALDI BEREAN

Edukiera: Gehienez 8 pertsona egon daitezke aldi berean. Erabilera librea denean, erabiltzaileak txandakatuz joango dira.

12+

12 urtetik gorakoentzat: Instalazioaren erabilera librea egin ahal izango da.

12 urtetik beherakoak: Beti heldu baten (monitore baten) gainbegiradapean egon behar dira aretoan.

6+

6 urtetik aurrera: Ikastaroetan eta kirola sustatzeko jardueretan parte hartu dezakete.

Tarifak

1 **Areto osoko alokairua:** 14.40€

2 **Banakako sarrera:** 1€

26 **Eguena**
Gizarte eta Kultura Etxean
17:30-19:00

FAMILIA ESKOLA

‘NERABEZAROA ETA LEHEN IRTEERAK: KONFIANTZAZKO AUTONOMIARA BIDEA. GILTZAK ETA BALIABIDEAK FAMILIENTZAT’



10-12 urte bitarteko umeen familiei zuzenduta, batez ere.
Landuko direnak:

- Nerabezaroan ematen den autonomia-prozesua
- Gurasoen beldurrak eta kezkak: zenbat askatu, zenbat kontrolatu, eta noiz esku hartu
- Lehenengo esperientziak eta egoera berriak
- Arrisku-egoeren aurrean nola jokatu...

Ezinbestekoa da izena ematea, eta ikastetxeetatik bideratuko da
INFO+ : bermeoprebentzioa@etorkintza.org - 675 025 018

Antolatzailea: ***Bermeoko Udala***

27 **Barikua**
Liburutegian
18:00etan

IPUIN KONTALARIA



’Bi printzesa eta sorgin bat’,

Ainhoa Etxebarria ipuin kontalariaren eskutik.

Antolatzailea: ***Bermeoko Udala***

28 **Zapatua**
Bree taldearen lokalean
09:00-19:00

TXAPELKETA

THE OLD WORLD IV. TXAPELKETA



Parte hartu nahi baduzue edo miniaturak eta joko hau gertutik ezagutu, guztiok zaudete gonbidatuta! Guztira, 20 parte-hartzailek borroka egingo dute Bree-ko Balea preziatua eskuratzeko.

Antolatzailea: ***Bermeoko Rol Eskola Elkartea***

Areneko kiroldegian

KIROLA

ESKUBALOIA

HAURRAK NESKAK:
Urdaibai Kurtzio – Muskiz Neskak 13
Urdaibai Gaztelugatxe – Eskubaloia Basauri F 2023
Urdaibai Txatxarramendi – Urdaibai Sollube
KADETE NESKAK:
Urdaibai Luruna – Artibai Eskubaloi Taldea
Urdaibai Burgoa Inpesca – Laudio B
GAZTE MUTILAK A: Urdaibai Occident – Beltzagorri Santutxu
SENIOR MUTILAK: Urdaibai Irastorza – Urduliz Eskubaloia

29 **Zapatua**
Areneko kiroldegian

KIROLA

ESKUBALOIA

KADETE MUTILAK: Urdaibai Talape Occident – Balonmano Barakaldo Bizkaia
KADETE NESKAK: Urdaibai Tribis Inpesca – Elorrio EKT Argiñeta K.T.

Kasinoan

ANAITASUN BAZKARIA eta DANTZALDIA

Informazio gehiago: Demiku jubilatuen elkartean

Antolatzailea: ***Demiku jubilatuen elkartea***



BUSTURIALDEKO XIII. ENPRESA IDEIA LEHIAKETA

▸▸ EPEA: 2026-11-06 (14:00)

▸▸ SARIAK: 7.000 €

INFO+

94 617 91 58
94 627 02 15
94 625 76 09
www.gaztedibusturialdea.eus

Bizkaia Gazteak Busturialdea

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Ü-BAi Urdaibaiko Garapen Ekonomiko Kontseilua Consejo de Desarrollo Económico de Urdaibai

bbk

Kultur Zerbitzuak

LUDOTEKA

Gizarte eta Kultura Etxean
6-11 urte bitarteko ume eta gaztetxoentzat
Barikuak eta zapatuak: 17:00 - 20:00





UME TXIKIEN AISIALDIKO ZERBITZUA

0-5 urte bitarteko ume eta euren gurasoentzat.

Astelehenetik eguenera: 17:00 – 19:00

Barikuak: 17:00-20:00

Umeak gurasoekin egon behar dira.

ZU ERE PUNTU SEGURUEN SAREKO KIDE IZAN ZAITEZ!

Indarkeria matxistari aurre egiteko, herritarron konpromisoa ere behar dugu. Orain, **zuk ere bat egin** dezakezu Bermeoko Puntu Seguruen Sarearekin!

Horretarako, joan sareko puntu babestu batera eta adierazi sarekide izateko konpromisoa: indarkeria matxista egoera batean laguntza behar duen edonori laguntzeko prest zaudela.

Konpromisoa hartzean, poltsa bat eta txapa bat jasoko dituzu, ikusgai eramateko. Horrela, zure ingurukoek jakingo dute laguntza behar izanez gero zugana jo dezaketela.

Egin bat sarearekin. Elkarren laguntzaz, Indarkeria matxistarekin amaitu dezagun!





GIZ

BUSTURIALDEKO XIII. ENPRESA IDEIA LEHIAKETA
Bizkaian erroldatutako 18 eta 35 urte bitarteko gazteei zuzenduta

Sariak:
1. saria: 3.000 € + Urtebeterako aholkularitza zerbitzua
2. saria: 2.000 € + Sei hilabeterako aholkularitza zerbitzua
Lehen sektoreagaz lotutako ideia onena: 1.000 € (Aurreko sarietakoren bat jaso ez badau)
Sari berezia: Ekonomia Ordinagaz lotutako ideia onena: 1.000 € (Aurreko sarietakoren bat jaso ez badau)
Zerbitzu edo produktu baten ideia sortzaileak izan daitekez, edo 2025ean edo 2026an sortutako negozioak/enpresak, baina derrigorrez Busturialdean kokatuta egon beharko dabe.



Proiektuak aurkezteko azken eguna: 2026-11-06 (14:00)
INFO+ www.gaztedibusturialdea.eus
eta www.gizbermeo.blogspot.com

LAN-ESKAINTZEN HARPIDETZA ZERBITZUA

Lan-eskaintzak Whatsapp bidez jasotzeko, 688819950 zenbakira idatzi. Zerbitzuan alta emoteko, 688819950 telefono-zenbakia gehitu behar da mugikorreko kontaktuen agendan, eta www.gizbermeo.blogspot.com webguneko eskaera-inprimakia bete.

EUSKERA SAILA

HELDUEN ANTZERKI TAILERRA

Urritik ekainera bitartean
Eguaztenetan, 19:30etik 21:30era, Gizarte eta Kultura Etxean
Info+: www.bermeon-euskaraz.eus, Berhaz eta Euskera Saila



BERMEOKO ERRALDOIEN PANPINAK SALGAI

Josefin, Anton, Mari eta Lorentzo erraldoien figurak Turismo Bulegoan daude salgai

Figura bakoitzaren prezioa: 20 €
Turismo Bulegoaren ordutegia:
- Astelehenetik barikura: 09:30-15:00
- Zapatuak: 10:00 - 14:00



ZINEA

NESTOR BASTERRETXEA ARETOAN

Umeentzako filmak

Doraemon: Aventuras en el mundo del arte
Superthings: Pelikula
Gungo eta Leize zuloetako Jokoak
La oveja Sahun: Misión calabaza

Nagusientzako filmak


Sentido y sensibilidad
Naza
Sacamantecas
Leones en invierno

***Adi egon udaleko sare sozialetara filmak aldatu daitezke eta.**

OHARRA: Hauteskundeak direla eta, azaroaren 28tik 30era ez da zinerik egongo.

SARREREN PREZIOA:

Zapatu eta domeketan: 6,00 €
Astelehenetan, ikuslearen egunean: 4,50 €
Umeen filmak: 4,50 €



KZ GUNEA

AURREZ AURREKO IKASTAROAK

Azaroaren 13an: 11:00-13:00. BakQ ziurtagiria (gaztelaniaz). 2 ordu.
Azaroaren 2tik 12ra: 09:00-11:00. "Kudeatu zaitez Google aplikazioarekin" (gaztelaniaz). 16 ordu.

IT TXARTELAK ATERATZEKO AZTERKETEN DATAK

Azaroaren 5ean: 13:30-15:30 / 15:30-17:30

Zubiaur tar Kepa 26-28 . 1. solairuan (udal-azokan)
Tel.: 944033325. www.kzgunea.eus
tutor.bermeo@kzgunea.net



ERAKUSKETAK



Nestor Basterretxea Aretoan

"'XL Ciudad de Frías" pintura lehiaketako erakusketa.

Azaroaren 14tik 22ra
Egunero 19:00-21:00
Antolatzaileak: Barrueta Arte Elkartea eta Asociación Amigos de Frías
Laguntzailea: Bermeoko Udala

Berhaz Bulegoan

ITSAS PALETA

Benito Barrueta arte elkarteko kide batzuek hartzen dute parte; itsasoaren inguruko koadro batzuk aurkeztu dituzte. Margolan eta argazki batzuen bidez, gertuko eta urrutiko itsas irudi batzuk errepresentatu dituzte.

Bulegoko ordutegia:
Astelehenetik barikura: 08:00-14:30
Apirilera bitartean

Erakusketa Kalean

ZIENTZIA KALEAN

Azaroaren 2tik 17ra Lameran, kioskoaren aurrean.
Antolatzaileak: EHU – Kultura Zientifikoko Katedra eta Nafarroako Unibertsitateko Zientzia Museoa.
Laguntzaileak: EHUko Ikerketa Gizartean Zabaltzeko Zuzendaritza, Euskampus Fundazioa eta Bermeoko Udala.

IKASTAROAK

ALKARTASUNA DANTZA TALDEA

HERRITARRENTZAKO DANTZA IKASTAROA
Egutegia: azaroaren 6tik martxoaren 12ra arte, barikuro. 19:00-20:30, Gizarte eta Kultura etxean.
Izen-ematea: Gizarte eta Kultura Etxean



MARRAZKETA, KOMIKIA ETA MANGA

Marrazketa eta sorkuntza digitaleko eskolak, eta komikia eta manga sortzeko eskolak.
11 urtetik gorako ikasleei zuzenduta egongo dira, eta ez da gutxieneko ezagutza-mailarik eskatuko.
Gizarte eta Kultura Etxean
2026ko abendutik 2027ko maiatzera, astean 4 ordu
Izena emateko: Gizarte eta Kultura Etxean, izen-emate orria beteta
Irakasleak: WITXITA (J. Urkidi Elortegi) eta HAUNTY (A. Agamez Montaña)
Informazioa: maisuwitxita@gmail.com/ 688 340 636



BEHARGINTZA

"BERTOKOA DALAKO...BERMEON EROSI" MERKATARITZA KANPAINA

Kanpaina honetan parte hartzen duten dendetan 20 €-ko erosketa egiten duzun bakoitzean harraskatzeko txartela jaso eta saria irabazi!

Herrian erosteak saria dauka eta denok izango gara irabazle!

Saririk bako txartelak Gabon azokan egingo den zozketarako erabiliko dira.



2026KO TOKIKO ENPLEGURAKO 3R PROGRAMA

Enplegua bilatzeko laguntza pertsonalizatua: banakako laguntza eskaintzen da lan-munduan sartzeko prozesu osoan zehar.

Harremanetarako:
enplegubehargintza@gmail.com / 94 617 91 90



OHARRAK

Azaroaren 29an Espainian hauteskunde orokorrak egingo dira. Hori dela eta, Erroxaperen lokala eta Gizarte eta Kultura etxeko Nagusien txokoa itxita egongo dira, azaroaren 24tik 29ra.
Ludotekak ere ez du zerbitzurik eskainiko azaroaren 27an eta 28an.

Gune horiek hauteslekurako erabiltzen dira.

Parkatu sortutako eragozpenengatik.





Abenduan:

- Euskararen Nazioarteko Eguna
- Pirritx, Porrotx eta Marimotots
- Guapa antzerkia
- Mari Domingi eta Olentzero

Jarri hemen zure publizitatea
Prezioa: 250 €

94 617 91 57
kultura@bermeo.eus

www.bermeo.eus

Lege-Gordailua: *BI-3421-2009* · Argitaratzailea: *Bermeoko Udala*